

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Ramona Gaztañaga Guridi

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1922)*

Aurkibidea



Biografia



Garagartza auzoko Txuanena baserrian jaio zen, bost anai-arreben artean. Aita bertakoa zen, eta ama, berriz, Udala auzoko Txukurrillo baserrikoa. Auzoko eskolan eta Gesalibar auzokoan ere ikasi zuen zazpi urtetik gerra hasi zen arte. Etxeko barazkiak Durango, Eibar eta Elgoibarko azoketan saltzen zituen, besteak beste. Gerra hasi zenean, ganadua, oiloak eta abar kendu zizkieten milizianoek eta familia osoa etxetik bidali. Ramona bere amarekin Garagartza auzoko Karraskain baserrian (gaur galduta) babestu ziren, baina laster itzuli ziren etxera. Aita beste alaba batekin Bilbo aldera joan zen eta anaia bat frontera. Gerra bukatu eta gero denak elkartu ziren berriro. Gazia (Gazeaga) baserriko Fernando Zuazubizkarrekin ezkondu zen Txuanenera. Bi seme-alaba izan zituzten.

Zintak

ARR-161

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-07-19
- **Iraupena:** 66 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

ARR-162

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-07-19
- **Iraupena:** 50 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Garagartzako eskolan, 100 umetik gora

- **Erref:** ARR-161/013
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:10:19. **Bukatu:** 00:12:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Garagartzako auzo-eskolan neska eta mutilak elkarrekin ikasten zuten. Ziriako Jauregi zen maisua, eta 100 umetik gora zituen bere kargu. Maisua "gogorra" zela diote.</p>

2. Soroko lana

- **Erref:** ARR-161/022
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:17:46. **Bukatu:** 00:18:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratztea eta soroa

Laburpena:

Baserrí inguruko sorook nolakoak ziren: "lauak eta erripan". Soroan zer ereiten zuten: artoa, baba, garia, patata, erremolatxa...

3. Gari-jotzea

- **Erref:** ARR-161/024
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:18:41. **Bukatu:** 00:22:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserría » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Gari-jotzeari buruzko azalpenak. Larraina nola prestatzen zuten kontatzen du. Lehenengo, gari-azaoak losa edo oholen baten kontra jotzen zituzten. Garia jo ondoren, makinan "garbitzen" zuten lastoa eta alea bereizteko. Makina, 15 bazkideren artean erositako zen.

4. Lete baserriko erlategia

- **Erref:** ARR-161/027
- **Iraupena:** 0:05:37. **Hasi:** 00:23:05. **Bukatu:** 00:28:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserríaren historia eta kokalekua
- Baserría » Baserriko lanak » Baserríari lotutako lanbideak

Laburpena:

Lete baserria, Karmenen jaiotetxea, gerra denboran milizioek erre omen zuten, erlauntzean ezia ateratzen ari zirela. Erlategi ona zuten baserrian; Karmenen aita eta aitajauna erlezainak ziren. Auzoko eta senideei abaoa eman ohi zien, ezia izan zezaten. Karmenek kontatzen du bere amak ezia nola ateratzen zuen.

5. Baserrian, gurasoekin

- **Erref:** ARR-161/041
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:39:58. **Bukatu:** 00:40:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Bost anai-arreba ziren; anaia mutikotan hil zen. Ramonaren hiru ahizpak neskame joan ziren, eta bera geratu zen baserrian, gurasoekin.

6. Autobusean esnea banatzera

- **Erref:** ARR-161/042
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:40:53. **Bukatu:** 00:44:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

Laburpena:

Egunero joaten zen kalera esnea partitzera. Esne-bezeroak zituen, eta etxez etxe banatu ohi zuen esnea. Esnea sobratuz gero, kale kantoietan jartzen zen sobratutako esnea saltzen. Hiru-lau behi zituzten baserrian. Autobusez joan ohi zen Arrasatera esnea saltzera. Autobus horrek Aramaio eta Arrasate arteko bidea egiten zuen, Jauregi esaten zioten.

7. Ostiraletan, plazara

- **Erref:** ARR-161/044
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:44:59. **Bukatu:** 00:45:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Ostiraletan plazara joaten zen. "Azalgak" (zerbak), tipulak, tomateak, arrautzak... eraman ohi zituen saltzeko.

8. Ahateak eta ahate-arrautzak

- **Erref:** ARR-161/047

- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:47:10. **Bukatu:** 00:48:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera

Laburpena:

10 ahate zituzten, eta ahate-arrautzak saldu ohi zituen Ramonak plazan. Baserrí ondoko errekan ibiltzen ziren ahateak, eta, iluntzean, artoa edota garia ematen zien eta baserrian egiten zuten lo. Egunero jartzen zuten arrautza, baita neguan ere.

9. Milizianoek ganadua eraman

- **Erref:** ARR-161/048
- **Iraupena:** 0:04:13. **Hasi:** 00:48:45. **Bukatu:** 00:52:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra denboran, milizianoek ganadua kendu zien. Milizianoek familia guztia atera arazi zuten baserritik, baina Ramona eta ama baserrira bueltatu ziren. Iluntze horretan, bi miliziano agertu ziren baserrian, eta ea han zer egiten zuten galdetu eta komoda gainera Jesukristoren irudia puskatu zutela kontatzen du. Abere faltan, gosea pasatu zuten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-06

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com